



TXOSTEN METEOROLOGIKOA –2023KO MARTXOA

Martxoa, orokorrean, oso beroa eta oso lehorra izan zen. Debagoienan eta Arabako Lautadan mende honetako martxorik lehorrena izan zen. Beroari dagokionez, EAE osoko batez besteko tenperatura mende honetako beroenen artean dago, 2001 eta 2003koarekin batera. Muturreko fenomeno meteorologikoei dagokienez, nahiko lasaia izan zen, igorri ziren abisu gehienak Itsaso zakarrari eta baso-sute arriskuari loturikoak izan ziren.

Prezipitazioa

Martxoa oso lehorra izan zen ia EAE osoan, Gipuzkoa ipar-ekialdean izan ezik, han lehorra izan zen. Eskualde hori salbu, gainerako tokietan espero zitekeen kantitatearen erdia baino euri gutxiago egingo du; Araba hegoaldean ez da %20ra iristen.

Prezipitazioaren banaketa espaziala ohikoa izan zen, baina kantitate oso txikiekin. Euri gehien Gipuzkoa ipar-ekialdean egin zuen eta oso estazio gutxitan gaintitu ziren 100 mm (Eskas 166.3 mm, Añarbe 118.2 mm, Ameraun 101.5 mm, Oiartzun 98.6 mm). Zenbat eta mendebalderago eta kantitateak txikiagoak izan ziren, nahiz eta Kostaldean eta Bizkaiko mendialdean gorakada txiki bat izan. Dena den, 50 mm baino pixka bat gehiago besterik ez (Iruzubietza 58.7 mm, Mungia 58.4 mm, Urkiola 53.7 mm, Almike 53.6 mm). Kantitate txikiak Araba hegoaldean jaso ziren, 10 mm baino gutxiago (Zambrana 4.4 mm, Moreda 6.2 mm, Espejo 6.6 mm, Kanpezu 7 mm, Páganos 7.8 mm, Trebiño 8.5 mm). Debagoienan eta Arabako Lautadan mende honetako martxorik lehorrena izan zen. Beste leku batzuetan, oso lehorrak izan diren beste urte batzuetako balioetara hurbildu ziren, hala nola 2002, 2010 edo 2021era.

Orokorrean batezbesteko klimatologikoarekin alderatuz 3 euri-egun gutxiago izan ziren: Bilbon 7, Donostian 9 eta Vitoria-Gasteizen 5. Horietatik bi egunetan bakarrik izan zen prezipitazioa oso ugaria (> 30 mm), baina Gipuzkoa ipar-ekialdean dauden eremu oso mugatuetan (Hilaren 11n: Eskas 44.2 mm, Oiartzun 35.9 mm, Miramon 35.9 mm; Hilaren 19an: Eskas 35.6 mm, Añarbe 30.8 mm).

Elurrari dagokionez, abisu bakarra igorri zen, hilaren 1ean izan zen, eta kota baxuetarako, 100-200 m. Alabaina, Enkarterri inguruan soilik egin zuen zertxobait goizean.

**Taula 1: Azken urteetan martxoan pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

	2023	2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014
Zorrotza	20.7	99.2	34.4	127.3	43.9	95.6	99.5	197.5	139.9	155.4
Lasarte	74.0	171.0	41.6	189.1	83.8	115.8	156.8	246.7	183.5	208.4
Arrasate	35.3	115.8	64.9	163.9	59.9	157.2	131.5	323.2	179.6	255.3
Abetxuko	17.7	56.8	22.6	78.3	23.2	96.3	45.2	96.0	93.3	148.1
Párganos	7.7	29.7	26.8	91.3	6.4	44.5	35.7	77.6	78.4	72.2

Tenperatura

Martxoko batez besteko tenperatura oso beroa izan zen. Kostaldean 12 eta 14 °C artekoa izan zen eta Arabako Lautadan 10 °C ingurukoa. Gutxi gorabehera 1981-2010 denboraldiko batez besteko normala baino 2.3 °C altuagoa. Mende hau kontuan hartuz, martxorik beroenetako bat da, 2001ekoarekin eta 2003koarekin batera. Hala ere, aipatu behar da, datu horiek gorabehera, 1957ko martxoa dela Bilboko eta Donostiako erreferentziako estazioetan izan den beroena.

Eguneko tenperaturen bilakaera kontuan hartuz, ikusten da lehenengo astea hotza izan zela, baina gero beste egun guztiak beroak.

Hilaren hasieran adbekzio hotza nagusitu zen, bi bortizeekin, bat Iberiar penintsularen iparraldeko muturrean zegoen eta bestea Sardinian, *Juliette* depresioa. Ipar-osagaiko fluxuak Kantaurira aire masa artiko bat ekarri zuen eta elur-kota ia itsas-mailara jaitsi zen, baina ia ez zuen prezipitatu. Horrela, tenperatura oso baxuekin hasi genuen martxoa, 1 eta 5 °C arteko batezbestekoekin eta balio negatiboekin barnealdeko mendi inguruetan. Izotza leku askotan egin zuen eta itsasertzetik oso hurbil dauden lekuetan soilik ez zuen egin, bereziki Bizkaiko kostaldean (Herrera -5.9 °C, Kapildui -5.2 °C, Oiz -5.2 °C, Etura -4.1 °C, Iturrieta -4.1 °C, Cerroja -3.2 °C).

Tenperatura minimo absolutuak egun batzuk geroago neurtu ziren, hilaren 5ean. Izotza leku askotan egin zuen, gaueko irradiazioagatik, izan ere oskarbi egon zen gauean (Iturrieta -8.1 °C, Salvatierra -7.2 °C, Pagoeta -7 °C, Albaina -6.7 °C). Kostaldetik hurbil ere balio negatiboak neurtu ziren (Arteaga -1.2 °C, Galdakao -1 °C, Berriatua -0.8 °C, Oiartzun -0.2 °C).

Ordutik aurrera, tenperatura igotzen hasi zen eta gorenera hilaren 13an iritsi zen. Hilaren 13tik aurrera garaian ohi diren baino tenperatura altuagoak neurtu ziren.

Hilaren amaieran tenperatura asko igo zen eta EAEn ezohiko beroa egin zuen. Izan ere, presio altu iraunkorrak zeuden Bizkaiko golkoan eta Afrika iparraldetik aire masa beroa sartu zen gurera. Horrela, hilaren 29an, 30 °C inguruko maximoak izan genituen, eta martxoko serie historikoetako errekorrak gainditu ziren kostaldeko eskualdetako estazio askotan (Oleta 30.5 °C, Arteaga 30.2 °C,



Sodupe-Cadagua 30 °C, Higer 29.8 °C, Galindo 29.8 °C, Berna 29.7 °C, Mungia 29.6 °C). Estazio gehienetan aurreko errekorra 2021eko martxoaren 31koa zen.

Gainera, hegoaldeko haize etengabeak gauez temperatura jaistea eragotzi zuen, eta hilaren 29tik 31ra bitartean garairako temperatura minimo altuak neurtu ziren, bereziki Ebro ibarrean non temperatura minimo altuen errekorra gainditu zen, mende honetakoa behintzat.

Intsolazioari dagokionez, ohikoa izan zen kostaldean eta handiagoa barnealdean, %10-20 artean. Hiriburuei dagokienez, Bilbok 130 ordu izan zituen, Donostiak 153 ordu eta Vitoria-Gasteizek 178 ordu.

Taula 2: Martxoan, azken urteetan, neurtutako batez besteko temperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2023	2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014
Zorrotza	14.7	13.3	12.1	11.1	12.3	11.2	12.5	10.9	10.9	12.2
Lasarte	13.0	12.3	11.4	10.8	11.1	10.6	12.0	9.4	9.5	11.1
Arrasate	12.2	10.6	9.7	8.7	9.5	8.3	10.5	7.1	8.0	9.3
Abetxuko	10.0	8.1	7.9	8.0	8.4	7.3	9.4	6.6	7.7	8.4
Páganos	11.3	8.4	9.1	8.6	9.2	7.1	10.3	7.0	8.6	9.0

Haizea

Bigarren eta hirugarren koadranteako fluxuak nagusitu ziren, bereziki azken horiek, eta intentsitate handia izan zuten. Martxoko lehen egunetan lehenengo koadranteako fluxuak nagusitu ziren, intentsitate ertain edo txikiarekin.

Hilaren 1etik 6ra ipar-osagaiko haizea nagusitu zen. Nahiz eta hasieran indartsua izan, hilaren 3tik aurrera indarra galdu zuen eta hilaren 4an ez zen neurtu bolada gogorrik. Gainera, ia egun osoan haizea aldakor ibili zen.

Hilaren 6an, azken orduetan, hego-osagaiko haizea finkatu zen eta ia hilabete osoan nagusitu zen. Alabaina, egun batzuetan fronteak pasa ziren eta egoera horietan haizeak tarteka mendebaldera egin zuen. Hegoaldeko haizea nabarmen indartu zen eta hilaren 7an 100 km/h-tik gorako lehen bolada neurtu zen (Orduña 107.6 km/h). Hilaren 8an (Matxixako 110.8 km/h) eta 9an (Orduña 102.8 km/h) ere 100 km/h-tik gorako boladak neurtu ziren, azken egun horretan haizeak mendebal/ipar-mendebaldera egin baino lehentxeago.

Hilaren 13an hilabeteko bolada gogorrenak neurtu ziren, bai haizeguneetan (Matxixako, 122.4 km/h-ko hego-mendebaldeko haize-bolada) bai haizeguneak ez diren lekuetan (Etura, 109.7 km/h-ko mendebal/hego-mendebaldeko haize-bolada).



Hilaren 17ra arte hegoaldeko haizeak gogor jo zuen, 100 km/h-tik gorako boladekin hilaren 14an (Matxixako 116.4 km/h), 16an (Matxixako 100.9 km/h) eta 17an (Orduña 105.8 km/h). Egun hartatik aurrera hegoaldeko haizearekin jarraitu genuen, baina hainbesteko indarririk gabe.

Hilaren 26an mendebal/ipar-mendebaldeko haizea ibili zen: itsasoan denboralea eragin zuen eta kostaldean haize-bolada oso gogorrak neurtu ziren (Matxixako 117.6 km/h, Santa Clara 116.4 km/h).

Azkenik, hilaren 31an, haizeak ipar-mendebaldera egin zuen arratsaldean, eta hilabetea hasi bezala amaitu zen.

Analisia

Martxoaren 1etik 7ra

Martxoa eguraldi hotzarekin hasi zen. Kantaurin depresio askatu bat zegoen aire masa oso hotzarekin (-34 °C 500 hPa-era eta -8 °C 850 hPa-era). Gainazalean depresio bat (1005 mb) zegoen Mediterraneoan eta 1042 mb-eko antizikloi bat Eskozia iparraldean. Egunez aurrera egin ahala depresio askatua ekialderantz urrundu zen eta Europa iparraldean zegoen aire masa hotz batek bere barnean xurgatu zuen, eta presio altuak Groenlandiatik Afrika iparraldera luzatu ziren.

Martxoaren 7tik 12ra

Egun haietan zirkulazio zonal indartsua nagusitu zen. Goi-geruzan kontraste handia zegoen Europa iparraldearen eta Iberiar penintsula eta Mediterraneoaren artean: iparraldean 500 hPa-eko mailan aire masa oso hotz eta zabal bat zegoen. 850 hPa-eko mailan tenperatura 5 eta 10 °C artekoa zen. Gainazalean Atlantiko depresioak mugitu ziren Britainiar uharteen inguruan, aldiz Iberiar penintsula eta Mediterraneoan presio altuak ziren nagusi; hala ere, fronte-sistema batzuk eragin ziguten. Azpimarratzekoa izan zen, nahiz eta presio altuen mendean egon, hilaren 11n eta 12an eragin zigun fronte iraunkorra, izan ere Gipuzkoa ekialdean euri ugari utzi zuen.

Martxoaren 13tik 21era

Denboraldi horretan bata bestearen atzetik gailurrak eta askak pasa diren, aska zertxobait sakonagoak. 850 hPa-eko mailan tenperatura 12 °C ingurukoa izan zen 16an, aldiz 0 °C ingurukoa hilaren 14an. Gainazalean antzeko egoerarekin jarraitu genuen, Atlantikoko depresioak Britainiar uharteen inguruan mugitu ziren eta Iberiar penintsulan presio altuak nagusitu ziren. Hilaren 18tik 19ra bitartean goi-geruzan pasa zen aska sakon bati loturiko fronte emankor batek euri ugari utzi zuen.

Martxoaren 22tik 31ra

Hilaren azken egunetan berriro ere zirkulazio zonala berrezarri zen, hasieran indartsua izan zen eta gero apur bat izurtu egin zen, baina aurreko aldi baino




gutxiago. 850 hPa-eko mailan hilaren 29an 14 °C-ra iritsi zen tenperatura, hilabeteko tenperaturarik altuena; hilaren 27an 0 °C neurtu ziren, kontrastea handia izan zen. Gainazalean depresioek goi-latituedeetatik pasatzen jarraitu zuten eta orokorrean Kantaurin eragin zuten fronteak oso ahulak izan ziren. Gurean presio altuak nagusitu ziren eta mendebal-osagaiko haizea ibili zen.

Oinarritzko datu estatistikoak

Taula 3: 2023ko martxoko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.





Estazioa	Batez besteko Tenp. °C	Tenp. max. °C	Tenp. max.abs. °C	Tenp. min °C	Tenp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako euri max l/m ²	Euri- egunak.
Zorrotza	14.7	19.3	29.6	10.2	2.4	0	20.7	8.5	6
Lasarte	13.0	18.1	28.5	8.0	-0.1	1	74.0	21.7	9
Arrasate	12.2	18.2	26.9	6.8	-2.6	3	35.3	12.7	7
Abetxuko	10.0	16.0	24.2	4.0	-4.4	6	17.7	7.0	6
Páganos	11.3	16.8	23.6	6.3	-1.6	3	7.7	4.1	3

Eguneko tenperatura eta prezipitazioaren grafikoak



Pilatutako prezipitazioa
 Tenperatura minimoa
 Batez besteko tenperatura
 Tenperatura maximoa

Prezipitazioaren jokaera

Behatutako prezipitazioa
Precipitación observadaPrezipitazio normala
Precipitación normalPrezipitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normalPrezipitazio normalarekiko portzentaia
Porcentaje respecto a la precipitación normal



Muturreko balioak

Martxoko tenperatura maximo absolutua.

Izena	Aurreko errekorra XXI mendea (°C)	Data	Aurtengo errekorra XXI mendea (°C)	Data	Estazioa jarritako urtea
Aizarnazabal	26.9	20/03/2005	28.2	29/03/2023	1999
Almike	28.6	31/03/2021	29.0	29/03/2023	2002
Amorebieta	28.2	31/03/2021	28.5	29/03/2023	1999
Andoain	27	31/03/2021	28.1	29/03/2023	1999
Arboleda	26.2	31/03/2021	27.4	29/03/2023	2004
Berna	28.5	10/03/2017	29.7	29/03/2023	1998
Derio	28.4	10/03/2017	29.4	29/03/2023	1999
Ereñozu	27.9	31/03/2021	28.5	29/03/2023	2002
Gardea	28.2	10/03/2017	28.6	29/03/2023	1999
Jaizkibel	26.2	29/03/2021	26.9	29/03/2023	1999
Lasarte	27.8	31/03/2021	28.5	29/03/2023	2000
Muxika	28.7	31/03/2021	28.8	29/03/2023	1999
Oiartzun	28	31/03/2021	29.1	29/03/2023	1999
Oleta	30.5	31/03/2021	30.5	29/03/2023	2001
Ordunte	27.3	10/03/2017	28.0	28/03/2023	1999
Punta Galea	28	31/03/2021	28.6	29/03/2023	1992
Urkizu	27.8	23/03/2001	28.4	29/03/2023	1999
Venta Alta	27.8	31/03/2021	28.4	29/03/2023	2000
Zizurkil	27.3	16/03/2019	27.6	29/03/2023	2000

Martxoko tenperatura minimo altuena

Izena	Aurreko errekorra XXI mendea (°C)	Data	Aurtengo errekorra XXI mendea (°C)	Data	Estazioa jarritako urtea
Espejo	12.5	30/03/2006	13.2	31/03/2023	2004
Párganos	11.8	21/03/2005	13.2	31/03/2023	2004
Roitegi	9.4	31/03/2021	9.5	30/03/2023	2008
Trebiño	11.4	20/03/2010	12.7	31/03/2023	2007
Zambrana	13.8	22/03/2001	14.1	31/03/2023	1999
Zegama	15.2	21/03/2001	15.7	29/03/2023	2000



Muturreko egoerak

Martxoan 17 abisu hori igorri ziren, ondoren azaltzen diren kausen arabera banatuta: 1 elurragatik, 2 haizeagatik haizeguneetan, 5 olatuen altueragatik nabigaziorako, 3 kostaldean inpaktuagatik, 2 izotzagatik eta 4 baso-sute arriskuagatik.

- Hilaren 1ean goizaldean eta goizean goiz elur txikia egin zuen han-hemenka 200 m-tik gora, batez ere Kantauri isurialdean; goizean atertu egin zuen.

Asteazkena, hilak 1: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 09etara ordu lokala.

- Hilaren 2an, Kantaurin 850 hPa-eko mailan aire hotzarekin, izotz txikia egin zuen Mediterraneo isurialdeko zenbait lekutan eta mendi inguruetan, nahiz eta zerua hodeitsu egon. Goietan izotz handia egin zuen. Hilaren 5ean berriro egin zuen izotza, eta kasu hartan gaueko irradiazioagatik. Izotz txiki-handia egin zuen leku askotan, baita kostaldeko leku batzuetan ere (Inurritza, -0.9 °C) eta Arabako zenbait lekutan izotz gogorra bota zuen.

Estazioa	Tenperatura minimoak hilak 2 (°C)
Herrera	-5.1
Kapildui	-4.3
Iturrieta	-3
Oiz	-2.8
Roitegi	-2.7
Beluntza	-0.9

Estazioa	Tenperatura minimoak hilak 5 (°C)
Iturrieta	-8.1
Salvatierra	-7.2
Pagoeta	-7
Otxandio	-5.2
Abetxuko	-4.4
Berastegi	-4.2

Osteguna, hilak 2: Abisu Horia tenperatura minimoak/izotzagatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala

Igandea, hilak 5: Abisu Horia tenperatura minimoak/izotzagatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala.

- Hilaren 8an Atlantikoko depresio bat Bizkaiko golkoraino zabaldu zen; goigeruzan zirkulazio zonala indartsua zen. Mendebaldeko eta hego-mendebaldeko haizea ibili zen, bolada gogorrekin eta oso gogor batzuekin. Arratsalde-gauean fronte batek eragin zigun, haizeak mendebal/ipar-mendebaldera egin zuen kostaldean eta ondoren haizeak indarra galdu zuen.

Haizeguneetako estazioa	Haize-bolada, hilak 8 (km/h)	Ordua UTC
Matxitxako	110.8	13:10
Kapildui	106.6	00:30
Arboleda	104.8	12:40
Orduña	104.8	09:10
Punta Galea	104.1	13:00
Cerroja	101.3	07:40

Haizegunean ez dagoen estazioa	Haize-bolada, hilak 8 (km/h)	Ordua UTC
Nanclares	100.2	10:00
Venta Alta	91.7	06:20
Galindo	83.3	07:20

Asteazkena, hilak 8: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 00etatik 15etara ordu lokala.

- Aurreko egunetan izandako haize-denboraleak olatu handiak eragin zituen Kantauri itsasoan hilaren 10ean. Egunaren lehen partean olatuen altuera adierazgarria Pasaiako portuan oso bizkor igo zen; goizaldean 1.5 m ingurukoa zen, goizeko lehen orduetan 3.5 m-ak gainditu zituen eta eguerdi inguruan 4 m-tik gora kokatu zen (4.43 m 12etan UTC). Arratsaldean olatuen altuera adierazgarria 3.5 m inguruan zegoen oraindik, baina gauean 3 m ingurura jaitsi zen. Goizaldeko itsasgoraren inguruan estimatutako gainezka egiteko indizeak $I = 6$ m eta $I_{max} = 6.5$ m izan ziren.

Ostirala, hilak 10: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo 2 milietan 03etatik 18etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 05etatik 08etara ordu lokala.

- Hilaren 13an depresio batek Bizkaiko golkoa zeharkatu zuen, Britainiar uharteen hegoaldean, goi-geruzan aska batekin batera. Goizaldean eta goizean goiz hego/hego-mendebaldeko haizea indartu egin zen eta intentsitate handiena arratsaldean izan zuen, bolada oso gogorrekin eta baita bolada bortitzen batekin ere. Haize-boladek haizeguneetan eta haizeguneak ez diren tokietan izan zuten eragina; une batzuetan mendebal/hego-mendebaldetik jo zuen haizeak, fronte hotz bat pasa ondoren. Hasieran haize-bolada gogorrenak Kantauri isurialdean neurtu ziren, baina arratsalde amaieran gogorrenak Araba hegoaldean neurtu ziren; azpimarratzekoa Eturan neurtutakoa, 100 km/h-ko abiadura gainditu baitzuen. Iluntzean haizeak bizkor galdu zuen indarra eta azken orduetan haize-bolada oso gogorrak haizeguneetan soilik neurtu ziren, bereziki kostaldean.

Haizeguneetako estazioa	Haize-bolada, hilak 13 (km/h)	Ordua UTC
Matxitxako	122.4	13:00
Untzueta	119.6	13:20
Cerroja	115	13:20
Kapildui	114.7	17:30



Orduña	114.7	17:00
Punta Galea	111.9	13:40

Haizegunean ez dagoen estazioa	Haize-bolada, hilak 13 (km/h)	Ordua UTC
Etura	109.7	17:30
Ilarduia	99.5	17:50
Ordizia	98.4	14:10
Nanclares	97.7	13:00
Venta Alta	97	13:30
Párganos	96.3	17:30

Astelehena, hilak 13: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 06etatik 18etara ordu lokala.

- Hilaren 13ko haize-denboralearen ondoren, itsasoaren egoera zakartu egin zen, eta gauean olatu handiak iritsi ziren kostaldera. Hilaren 13an, azken orduetan olatuen altuera adierazgarriak Pasaiaiko portuan 3 m-ak gainditu zituen eta hilaren 14ko goizaldean 4-4.5 m ingurukoa izan zen (4.62 m 04etan UTC). 4 m-ren goitik egon zen goizean, baina eguerditik aurrera jaisten hasi zen eta iluntzean 3.5 m-tik behera kokatu zen.

Asteartea, hilak 14: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietarako 00etatik 15etara ordu lokala..

- Hilaren 16an eta 17an hego-osagaiko haizeak gogor jo zuen (hilaren 16an: Matxitxako, 100.9 km/h eta Ilarduia, 81.1 km/h; hilaren 17an: Orduña, 105.8 km/h) eta udaberriko tenperatura balioak izan genituen, ia udakoak kostaldean hilaren 16an (hilaren 16an Oleta, 28.4 °C eta hilaren 17an, 24.7 °C). Hegoaldeko haizearen indarragatik, tenperatura altuagatik, hezetasun erlatibo baxuagatik eta landarediaren lehortasunagatik hilaren 16an baso-sute arriskua altua izan zen Kantauri isurialdean eta baita hilaren 17ko goizaldean ere. Baso-sute batzuk gertatu ziren, adibidez Barakaldon. Hilaren 17ko goizaldean haizeak mendebal/ipar-mendebaldera egin zuen Bizkaian eta ondorioz hezetasun erlatiboa handitu egin zen.

Osteguna, hilak 16: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik Kantauri isurialdean 06etatik 24etara ordu lokala.

Ostirala, hilak 17: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik Kantauri isurialdean 00etatik 09etara ordu lokala

- Hilaren 23an eta 24an marea biziak izan ziren, hilaren 21eko ilargi berriari eta hilaren 20ko udaberriko ekinokzioari loturikoak. Hilaren 23tik aurrera olatuen altuera adierazgarria ere handitu egin zen, hilaren 24an goizean goiz 3 m-ak gainditu zituen. Hilaren 23ko goizaldeko itsasgoran gainezka egiteko indizeak $I = 6$ m eta $I_{max} = 6.3$ m izan ziren, arratsaldekoan $I = 6$ m eta $I_{max} = 6.3$ m. Hilaren 24ko goizaldeko itsasgoran gainezka egiteko indizeak $I = 6.5$ m eta $I_{max} = 7$ m izan ziren eta arratsaldekoan $I = 6.1$ eta $I_{max} = 6.6$ m.

Osteguna, hilak 23: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 05etatik 07etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 17etatik 19etara ordu lokala.

Ostirala, hilak 24: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 05etatik 07etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 18etatik 19etara ordu lokala.

- Hilaren 25ean, azken orduetan, haizeak Bizkaian mendebal/ipar-mendebaldera egin zuen eta gero gainerako lekuetan gertatu zen haizearen norabide aldaketa. Hilaren 26an, lehen orduetan, haizea indartu egin zen eta olatu handiak altxatu zituen. Hilaren 26ko goizaldean eta goizeko lehen orduetan olatuen altuera adierazgarria 2.5 m ingurukoa zen, baina egunaren erdialdeko orduetan 100 km/h-tik gorako haize-boladak izan genituen kostaldean, olatuak handitu egin ziren, arratsalde-gauean 4.5 m ingurukoak izan arte (4.62 m Pasaiaiko portuan 19etan UTC). Azken orduetan olatuen altuera adierazgarria txikitu egin zen, hilaren 27ko goizaldean txikitzen jarraitu zuen eta goizean goiz 3.5 m-ren azpitik kokatu zen.

Igandea, hilak 26: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietarako 12etatik 24etara ordu lokala.

Astelehena, hilak 27: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 06etara ordu lokala.

- Hilaren 28an azken orduetan eta hilaren 29ko lehen orduetan Europa erdialdean antizikloi bat zegoen eta Atlantikoan depresio sakon bat, gauzak horrela, hegoaldeko haizea indartu egin zen, 100 km/h-ra hurbilduz goizeko lehen orduetan (Matxitxako, 99.5 km/h). Temperatura maximoak igo egin ziren eta Kantauri isurialdeko zenbait lekutan 30 °C-ak gainditu zituzten (Oleta 30.5 °C). Estazio askotan martxoko tenperatura altuen efemerideak gainditu ziren. Haizearen indarragatik, tenperatura altuengatik, hezetasun baxuagatik eta landarediaren lehortasunagatik, baso-sute arriskua altua izan zen, bereziki Kantauri isurialdean. Azpimarragarria da egun horretan Galdamesen izan zen baso-sutea.

Asteazkena, hilak 29: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 00etatik 24etara ordu lokala.

Osteguna, hilak 30: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 00etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 31n, goizean, mendebal/ipar-mendebaldeko haizea indartu egin zen kostaldean, arratsalde-gauean bolada oso gogor batzuekin (Matxitxako 78 km/h). Olatuen altuera adierazgarria goizaldean eta goizean goiz 2.5 m inguruan egon zen, goizean handitu egin zen eta arratsaldeko lehen orduetan 3.5 m-ak gainditu zituen eta gero 4 m-ak (4.16 m Pasaiaiko portuan 15etan UTC). Arratsalde-gauean olatuen altuera adierazgarriak 3.5-4 m inguruan jarraitu zuen.

Ostirala, hilak 31: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 12etatik 24etara ordu lokala.



Terminologia

Batez besteko tenperatura: hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen duen egun kopurua.

Tenperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1981-2010eko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen %20ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen %20ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1981-2010eko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1981-2010eko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen %20ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen %20ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1981-2010eko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologia gidan aurki daiteke: <https://www.euskalmet.euskadi.eus/dibulgazioa/estilo-gidaliburua/>

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeko daude.